



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMO/A. SR./A:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Gasteizen, Lehendakariitzako egoitzan, **2025eko UZTAILAREN 28an**, 10:00etan, egingo den bilerarako dei egiten dizut. Sarbide telematikoa ere egongo da. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, le convoco a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakariitza, a las 10:00 horas del día **28 DE JULIO DE 2025**. Se dispondrá de acceso vía telemática, con el siguiente

**GAI-ZERREDA****ORDEN DEL DÍA**

Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

**LEHENDAKARITZA****LEHENDAKARITZA**

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Kanarietako Autonomi Erkidegoarekin sinatu beharreko jarduera-protokolo orokorra.

2

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Protocolo General de Actuación a suscribir con Comunidad Autónoma de Canarias.

Erabaki-proposamena, Albaola Itsas Kultur Faktoriari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, San Juan ontziaren uretaratzea eta Kanadarako zeharbide transatlantikoa sustatzeko.

3

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Albaola Itsas Kultur Factoria, para promover la botadura de la Nao San Juan y su travesía trasatlántica hasta Canadá.

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA****DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartu eta aritzeari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzen duena.

4

Proyecto de Decreto de desarrollo de la Ley 8/2022, de 30 de junio, sobre acceso y ejercicio de profesiones de la actividad física y del deporte en la Comunidad Autónoma del País Vasco.



Erabaki-proposamena, Arabako Foru Aldundiarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatzea onartzen duena, euskarazko hedabideei zuzendutako dirulaguntzen markoari buruzkoa. Epealdia 2025-2028.

Erabaki-proposamena, "Centro de Actividades Culturales Teatro Arriaga SA" entitateari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, "Zinebi Animation Lab" proiektua garatzeko 2025ean.

Erabaki-proposamena, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SA entitateari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, "Ikusmira berriak: sortzen ari den talentua eta sorkuntza bultzatu eta bultzatzen duten ikus-entzunezko proiektuak garatzeko egoitza-programa" proiektua finantzatzeko, 2025. urtean.

Erabaki-proposamena, "Arte Ederren Bilboko Museoa Fundazioa" erakundea urte anitzeko zuzeneko dirulaguntza bat jasotzeko berme erreala eratu beharretik salbuestekoa, "Arte Ederren Bilboko Museoa handitu eta eraberritzeko" proiektua finantzatzeko 2025-2026 epealdian.

## OGASUN ETA FINANTZA SAILA

Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura zabaltzekoa, Hezkuntza Sailak 2025eko ekitaldian dituen kreditu-beharrizanei erantzuteko, 2025eko irailetik abendura bitarteko hezkuntza-itunak finantzatzeko, 81.804.766,72 euroko zenbatekoarekin.

Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura zabaltzekoa, Osasun Sailak 2025eko ekitaldian dituen kreditu-beharrizanei erantzuteko, osasun-garraioko hitzarmen kolektibo berriaren betetzea finantzatzeko 24.500.000 euroko zenbatekoarekin.

5 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con la Diputación Foral de Álava, la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Gipuzkoa, sobre el marco de subvenciones a los medios de comunicación en euskera. Periodo 2025-2028.

6 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Centro de Actividades Culturales Teatro Arriaga S.A. para el desarrollo del proyecto "Zinebi Animation Lab" en 2025.

7 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Festival Internacional de Cine de Donostia San Sebastián SA, para financiar el proyecto "Ikusmira berriak: programa de residencias para el desarrollo de proyectos audiovisuales que apoya e impulsa el talento emergente y la creación", en el año 2025.

8 Propuesta de Acuerdo de exoneración a la entidad "Fundación Museo Bellas Artes de Bilbao", de la necesidad de constituir garantía real en relación con una subvención directa plurianual para la financiación del proyecto "Ampliación y reforma del Museo Bellas Artes de Bilbao" en el periodo 2025-2026.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

9 Propuesta de Acuerdo de ampliación de Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Educación en el ejercicio 2025, al objeto de financiar los conciertos educativos en el periodo septiembre-diciembre de 2025, por importe de 81.804.766,72 euros.

10 Propuesta de Acuerdo de ampliación del Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Salud en el ejercicio 2025, al objeto de financiar el cumplimiento del nuevo convenio colectivo de transporte sanitario, por importe de 24.500.000 euros.



## GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

## DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

Erabaki-proposamena, zeinaren bidez Jaurlaritzaren iritzia ematen baita, EH Bildu legebiltzar-taldeak Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2021 Legea aldatzeko egindako Lege-proposamena aintzat hartzeari dagokionez.

11 Propuesta de Acuerdo de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley, formulada por el grupo EH Bildu, de modificación de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

Erabaki-proposamena, zeinaren bidez Jaurlaritzaren iritzia ematen baita, EA-NV legebiltzar-taldeak Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2021 Legea aldatzeko egindako Lege-proposamena aintzat hartzeari dagokionez.

12 Propuesta de Acuerdo de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley, formulada por el grupo EA-NV, de medidas para la normalización lingüística, por la que se modifica la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco

Dekretu-proiektua, Bizipoza Kultur Elkartearen izeneko elkartearen onura publikokoa dela aitortzekoa.

13 Proyecto de Decreto por el que se reconoce de utilidad pública a la asociación Bizipoza Kultura Elkarte.

Erabaki-proposamena, Euskal Herriko Unibertsitateari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa. Dirulaguntza horren bidez ITUNA zentroak, Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen dokumentazio eta ikerketa zentroak, ikerketa-proiektua egingo du, euskal herritarrek ekonomia itunari eta autogobernuari buruz duten pertzepzioaren analisi diagnostiko eguneratu bat eginez.

14 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea, (UPV-EHU) para la realización del proyecto de investigación mediante la realización de un análisis diagnóstico actualizado de la percepción de la ciudadanía vasca sobre el concierto económico y el autogobierno a llevar a cabo por el centro ITUNA de documentación e investigación del Concierto Económico y las Haciendas Forales.

Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaraz gainean egon dadin.

15 Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.

## HEZKUNTZA SAILA

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako deialdia finantzatzeko, 2025-2026 ikasturterako.

16 Propuesta de Acuerdo de autorización de gasto superior a 5.000.000 de euros para la financiación de la convocatoria de becas, ayudas y subsidios para realizar estudios no universitarios para el curso académico 2025-2026.

Erabaki-proposamena, Osotu Lanbarri Fundazioari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, bere eredu pedagogikoaren berrikuntza-prozesuak sendotzeko.

17 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Osotu Lanbarri al objeto de consolidar los procesos de innovación de su modelo pedagógico.



Erabaki-proposamena, Osotu Lanbarri Fundazioa salbuestekoa zuzeneko dirulaguntza bat jasotzeko berme erreala eratu beharretik, eredu pedagogikoaren berrikuntza-prozesuak sendotzeko.

18

Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Fundación Osotu Lanbarri de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención directa al objeto de consolidar los procesos de innovación de su modelo pedagógico.

## **OSASUN SAILA**

## **DEPARTAMENTO DE SALUD**

Erabaki-proposamena, Biogipuzkoa (Osasun Ikerketako Institutua) irabazi-asmorik gabeko elkarte berme erreala eratu beharretik salbuesten duena, 5414 programako dirulaguntza izendun bat 2025eko Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontuetan aurreikusita dagoena, ordainketa aurreratuz jasotzeko.

19

Propuesta de Acuerdo de exoneración a la asociación sin ánimo de lucro Instituto de Investigación Sanitaria Biogipuzkoa de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de un pago anticipado de una subvención nominativa (programa 5414), contemplada en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi del 2025.

## **ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA**

## **DEPARTAMENTO DE CIENCIA, UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN**

Erabaki-proposamena, Euskampus Fundazioari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, Busturialdea-Urdaibai eskualdean Guggenheim proiektuari buruzko entzute aktiboko prozesu bat egiteko.

20

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Euskampus Fundazioa para la realización de un proceso de escucha activa sobre el proyecto Guggenheim en la comarca Busturialdea-Urdaibai.

Erabaki-proposamena, ikerketa kooperatiboko zentro hauei zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2025. urtean ikerketa-jarduera garatzeko: CIC BiomaGUNE, CIC Energigune, CIC Nanogune eta CIC Biogune.

21

Propuesta de Acuerdo de concesión de cuatro subvenciones directas a los Centros de Investigación Cooperativa, CIC BiomaGUNE, CIC Energigune, CIC Nanogune y CIC Biogune, para el desarrollo de su actividad investigadora durante el año 2025.

## **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA**

## **DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO**

Erabaki-proposamena, Donostiako Udaleko "Donostiako Sustapena Sozietateari" dirulaguntza zuzen bat ematekoa, Ekinn Dendak Merkatua proiekturako, Bretxako Merkatua berpizteko xedea duena.

22

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la "Sociedad de Fomento San Sebastián" del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, para el proyecto Ekinn Dendak Merkatua, para la revitalización del Mercado de la Bretxa.



Erabaki-proposamena, Eibarko Udalari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa "Errebal Plaza gunea egokitzeko eta dinamizatzeko" proiektuaren jarduketak egiteko Eibarko udalerrian, "Dibertsifikazio ekonomikoa: turismoa eta merkataritza" trakzio-proiektuaren esparruan, eta, era berean, dirulaguntza hori gauzatzeko lankidetz hitzarmena sinatzeko baimena ematekoa.

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa, LEADER eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak finantzatzeko 2025eko ekitaldian, Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (NPBPE) 2023-2027 esparruan.

Erabaki-proposamena, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin estatistika-arloko hitzarmena bat sinatzeko baimena ematekoa, 2025. urtean.

**JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA**

Erabaki-proposamena, Aukerak-Gizarteratzeko Euskal Agentziako Administrazio Kontseiluko kide bat izendatzeko.

Erabaki-proposamena, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiarekin, Presidentetza, Justizia eta gorteekiko Harremanetarako Ministerioarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin hitzarmen bat sinatzeko baimena ematekoa, kanpoko praktikak egiteko epaitegi zein auzitegietan.

Erabaki-proposamena, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiarekin, Presidentetza, Justizia eta Gorteekiko Harremanen Ministerioarekin eta Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen duena, kanpoko praktikak egiteko epaitegi zein auzitegietan.

23

Propuesta de Acuerdo de concesión de subvención directa al Ayuntamiento de Eibar para la realización de las actuaciones para "La adecuación y dinamización del Espacio Errebal Plaza", en el marco del proyecto tractor "Diversificación económica: sector turístico y comercial" en el municipio de Eibar, y de autorización de la suscripción del convenio de colaboración que instrumentaliza dicha subvención.

**DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

24

Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000,00 de euros, para financiar las ayudas destinadas a la promoción, al desarrollo y a la diversificación económica de los municipios rurales incluidos en la zona LEADER, para el ejercicio 2025, aprobada en el Marco del Plan Estratégico de la Política Agraria Común (PEPAC) 2023-2027.

25

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con el Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, en materia de estadística, año 2025.

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS**

26

Propuesta de Acuerdo de designación de vocal del Departamento de Educación del Consejo de Administración de Aukerak, Agencia Vasca de Reinserción Social.

27

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con el Consejo General del Poder Judicial, el Ministerio de la Presidencia, Justicia y Relaciones con las Cortes y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, para la realización de prácticas externas en juzgados y tribunales.

28

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con el Consejo General del Poder Judicial, el Ministerio de la Presidencia, Justicia y Relaciones con las Cortes y la Universidad de Deusto, para la realización de prácticas externas en juzgados y tribunales.



Erabaki-proposamena, zeinaren bidez baimena ematen baita Presidentetza, Justizia eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioak eta Justizia Administrazioaren funtzionamendurako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak hornitzeko funtzioak eskuratuta dituzten autonomia-erkidegoek sinatutako hitzarmena luzatzeko eta aldatzeko. Hitzarmenaren xeda da ezartzea zer ordezkaritza-sistema izango duten autonomia-erkidegoek Biktimei Laguntzeko Aholku Batzordean.

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Deustuko Unibertsitatearekin sinatu beharreko hitzarmena, Osasun Zientzien fakultateko gradu eta graduondoko ikasleen eta profesional elkartuen ikerketa eta prestakuntza integrala hobetzeko.

29

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de prórroga y modificación del convenio entre el Ministerio de la Presidencia, Justicia y Relaciones con las Cortes con las Comunidades Autónomas, con traspaso de funciones en materia de provisión de medios personales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia, para establecer el sistema de representación de las Comunidades Autónomas en el Consejo Asesor de Asistencia a las Víctimas.

30

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del convenio de colaboración a suscribir con la Universidad de Deusto, con el fin de mejorar la investigación y la formación integral de los/las estudiantes de grados y postgrados de la Facultad de Ciencias de la Salud de dicha universidad y de los/las profesionales asociados.

**IZENDAPENAK ETA KARGU-  
KENTZEAK  
LEGE BILTZAR-EKIMENAK**

**NOMBRAMIENTOS Y CESES**

**INICIATIVAS PARLAMENTARIAS**

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 24an. En Vitoria-Gasteiz, 24 de julio de 2025.

**IZPTA./Fdo.: UBARRECHENA CID, MARIA.  
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU,  
JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA  
CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO,  
SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO**



*Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria*  
*El Lehendakari del Gobierno Vasco*

**LEHENDAKARIAREN BAIMENA, GOBERNU KONTSEILUAREN 2025eko UZTAILAREN 28ko BILERA TELEMATIKOKI EGITEKO**

2022ko maiatzaren 24an, Gobernu Kontseiluak Erabaki bat hartu zuen, Gobernu Kontseiluaren bilera telematikokoak puntualki egiteko jarraibideak onartzen dituen, eta erabaki horren arabera, beharrezkoa da lehendakariak, berariaz eta arrazoituta, bilera horiek telematikoki egitea baimentzea.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, ezin izango da fisikoki bertaratu Gobernu Kontseiluak uztailaren 28an Vitoria-Gasteizen egingo duen bilerara.

Aztergaien zerrenda ohikoa dela ikusita eta ebatzi beharreko gaiak kontuan hartuta, egokia da bilera telematikoa egitea, arestian aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakian adierazitako baliabide teknikoak erabiliz.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek aukera ematen dute, bideokonferentzia bidez, irudia eta soinua bi noranzkoetan eta aldi berean komunikatzeko; eta hortaz, geografikoki urruti dauden bi pertsonaren edo pertsona-talderen arteko denbora errealeko ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izateko. Halaber, bermatu egiten dute eztabaidetan eta hausnarketetan askatasunez parte hartzea.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek modu egokian bermatzen dituzte, halaber, parte-hartzaileen identitatea eta segurtasuna, kanpoko interferentziarik ez egotea, esku hartzeko askatasuna eta eztabaiden izaera sekretua edo erreserbatua.

Hori horrela izanik,

**HONAKOAK BAIMENTZEN DITUT**

1.- Gobernu Kontseiluak 2025eko uztailaren 28an egingo duen bilera telematikoki egiteko baimena ematen dut, honako Baimen honetan adierazita dauden baldintzetan.

**AUTORIZACIÓN DEL LEHENDAKARI PARA QUE LA REUNIÓN DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE 28 DE JULIO DE 2025 SE CELEBRE DE FORMA TELEMÁTICA**

Con fecha de 24 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno adoptó un Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la celebración puntual de reuniones telemáticas de Consejo de Gobierno, siendo necesario conforme al mismo que el Lehendakari autorice, de forma expresa y motivada, la celebración de dichas reuniones de forma telemática.

La consejera de Cultura y Política Lingüística, Dña. Ibone Bengoetxea Otaolea, no podrá asistir físicamente a la reunión del Consejo de Gobierno a celebrar el día 28 de julio en Vitoria-Gasteiz.

Dado el carácter ordinario del orden del día, y a la vista de los asuntos a resolver, procede realizar una reunión telemática utilizando los medios técnicos que se indican en el Acuerdo de Consejo de Gobierno antes referido.

Los medios técnicos indicados en esta autorización permiten, mediante videoconferencia, la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido y, por tanto, la interacción visual, auditiva y oral en tiempo real entre dos personas o grupos de personas geográficamente alejadas, garantizando la libre participación en los debates y deliberaciones.

Los medios técnicos indicados en esta autorización garantizan también de forma adecuada la identidad y seguridad de las personas participantes, la ausencia de interferencias externas, la libertad de intervención y el carácter secreto o reservado de los debates.

En su virtud,

**AUTORIZO**

1.- Que la reunión del Consejo de Gobierno de 28 de julio de 2025, se celebre de forma telemática, en los términos expresados en la presente Autorización.



*Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria*  
*El Lehendakari del Gobierno Vasco*

---

2.- Telematikoki konektatuko diren Gobernu Kontseiluko kideek ZOOM plataforma digitala erabili beharko dute; eta, horretarako, esteka honetan sartu beharko dute:  
<https://euskadi.zoom.us/j/99557940350>

3.- Honako baimen hau bilkura-deialdiari eransteko baimena ematen dut, bilerari dagokion gaitzerrendarekin batera.

2.- Que las y los miembros del Consejo de Gobierno que se conecten telemáticamente, deberán de utilizar la plataforma digital ZOOM, accediendo al siguiente enlace:  
<https://euskadi.zoom.us/j/99557940350>

3.- Que la presente autorización se incorpore a la convocatoria de la sesión junto con el orden del día.

Vitoria-Gasteizen, 2025ko uztailaren 23an.

IMANOL PRADALES GIL.

Lehendakaria.